

Aingerua maletategian da

Bat-batean geratu zen autoa. Tupustean esango nuke. Ez zirudien motorreko matxuraren bat izan zitekeenik, ez baitzen indarra galduta-edo, apurka-apurka gelditu. Gaua iluna zen, eta ilunagoa nire buruko lausoa. Haizetakoaren aurrean errepiderik ez ikustea izan zen lehen zantzua, bigarrena, kopilotutzat neraman lagunaren beso odoleztatua. Tira, kopilotu esatea bera ere eufemismotzat jo daiteke, kolpearekin ez baitzen esnatu ere egin. Orduan konturatu nintzen bidetik atera eta zuhaitz bat izan zela ibairako bidea, halaxe —kolpetik—, eten ziguna. Sendoak dira, bai, pinu puta horiek. Segundo batzuk gehiago eman nituen gertatutakoaren pelikula osatzen, ez zen erraza egoera hartan birbobinatzea. Bazirudien, bazkaria egin herri hartatik buelta mendiko bidexka horietakoetatik egitea erabaki genuela, alkoholemia kontrolak saihesteko-edo. Ez dut esango edan ez genuenik, baina izanak gara egun hartan baino katu galantagoarekin. Bidea ilun zegoen, ez baita argi artifizialik horrelako lekuetan, eta, gainera, hura ezezaguna zen niretzat. Aldamenean laguna nuen, seko lo, mozkorra pasatzen; eta ni, harengandik urrunegi ere ez. Azkenean 60.000 kilometrotik gora eginak zituzten pneumatiko leun-leunek, egunen batean egin behar, eta, irrist egin zuten. Autoa bidetik atera, eta zuzen-zuzen errekarara bidean topatutako arbolaren kontra jo zuen. Edonola ere, gertatutakoaz gehiegi jabetu gabe, laguna esnatzea erabaki, eta astindu pare bat eman ostean gertatutakoaren berri eman nion —aitzina egin aurretik, esan behar dut hemendik aurrera izkiriaturiko hitzak, kontaketa zerbitzura, esan nahi genituen gisan daudela jarriak; ez, beharbada, esan genituen bezala—.

Eta halaxe jarri ginen, ni barruan eta bera kanpoan, autoa sasi artetik atera nahian. Pentsatu baino dezente errazagoa izan zen, eta, pozik antzean, han abiatu ginen, ibilgailuaren —momentu horretatik aurrera askotxo zen autoa deitzea, eta ibili, behintzat, ibiltzen zen— eskuin alde guztia konkaturik, ez leiho, ez atzerako ispilu, ez gauaren iluntasunean ikusi ez, baina faltako zitzaizkion hainbat puska.

Etixerako bidean ginen, atsedenaldiak gure buruak ez ezik autoa ere konpon zezakeelako esperantzak animaturik, ia-ia txisteka misteka hasteko prest ere (paregabea da ardoaren indarra,

zioen beste hark). Eta bat, bi, hiru... ez ziren lau segundo pasa, eta ia biak batera egin genuen oihi zibilizazio arrastoak zituen auzune batera heltzen ari ginelako jabetu ginen unean.

—Maletategia!

Hantxe bertan gelditu nuen autoa. Ez ginen bertatik ateratzen ausartu ere egiten, ibilgailuaren atzeko zuloan “materiala” nola zegoen ikustera. Ederra egin genuen. Ordura arte larritzat jo genituenak; hala nola, Karlosen besoa, autoaren konponketa, sustoa bera, ezerezean geratu ziren zetorkiguna edo etor lekigukeena kontuan hartuz gero. Bertan eman genuen ordu laurden-edo, elkarri begiratu ere egin gabe. Negu gorria bazen ere, ez genuen sentitzen garai batean leihoa egon zen zulotik sartzen zen haize jelatuak zekarren hotza; udara izan balitz ere, uztailako egun sargorietako bero sapa nabarituko ez genukeen bezalaxe. Sentitzearen kontu horiek buruaren gauzak dira, eta guk burua beste nonbait baikenuen. Nola hortik atera.

—Etxera bidean pentsatuko dugu zer egin —beldurrak kendu zizkion lagunari mozkorra eta hitanoa—. Arranka ezazu.

Isilik egin genuen beste kilometro pare, etxera bidean. Ez ziren asko izan, eta ez genuen denbora gutxi eman. Ez dakit erlojuari zenbat minutu joan ziren, eta hala ere, ez zitzaigun axola. Bazirudien denbora eta espazioaren senak hango pinuaren kontra geratu zirela itsatsirik.

—Zer egin? —gogoan ez dudan momentu batetan— Arraioa! gure aitonarena izan huen, ez zuenarena. Eta prezioa hitzartuta zegok.

Eta amak ez zekien ezer. Eta legeak hori saltzea debekatua zuen. Eta lekuz aldatzeko ere, tramite ugari egin beharra zegoen. Eta, finean, ez genuen deus taxuz egin.

—Esan nian hasieratik gauza bat negozioak direla —erantzun zidan—, eta bestea bazkariak. Eta nahiz eta negozioetako bazkariak egon badauden, gaurkoa ez zela halako bat.

—Tira, nolabait bai huen negozio-bazkaria. Azkenean, sartu dituk negozioan bai medikua, bai tabernaria eta baita beste irlandar hura ere.

—Bai, bai —bota zidan—, eta sartu bezala aterako dituk.

Ondo eztabaidatu ondoren, bolanteari eragin eta atzera etorritako bidetik itzultzea deliberatu genuen. Oso berandu ez zen, gaueko hamaikak doi-doi, eta aipaturiko hiru morroiak izenik gabeko herrian izango ziren oraindik, egindako tratua ospatzen. Gauzak ondo irtenez gero, ez zen mahuka txikia. Gauzak ondo irtenez gero.

Hamabosten bat kilometro egin genituen itzuleran, orain bai, burua argixeago. Logura aspaldiko oroimen ahul bat baino ez zen; lasaitasuna, berriz, etorkizuneko itxaropen bat. Asmoa beste hirurei gauzak nola gertatu ziren aitortzea zen. Maletategia oraindik zabaldu ere ez genuela egin esan, eta negozioan jarraitu nahi zuten ala ez itaundu, han barruko egoeraren berri izan gabe. Edonola ere, asko zegoen tartean —irabazteko zein galtzeko, barrukoa nola egon—, eta eustekotan, hirurek eutsi beharko zioten apustuari. Bostok eutsi beharko genion.

Herri hartan hiru taberna bakarrik zeuden, eta horietako batean topatuko genuen kideetako bat lanean. Bertara joan ginen zuzenean, neskak beste bien berri izango zuelakoan. Ikusi gintuenean ez zuen beste munduko aurpegiarik jarri, gu han egoteak larregi harrituko ez balu bezala. Etxera horren goiz joateko gai ez girela pentsatu izanaz harro-edo.

—Hara, hemen dituk gure bi mozoloak —aldarte onekoa zegoen, eta ez zen harritzekoa, filmaren lehenengo zatia soilik baitzekien.

—Badakin, ezin etxera txintxo-txintxo joan —Kopilotua, disimulatu nahian.

—Esaten nian, ba, nik. Zer nahi, garagardo gehiago? Azkenean ezingo duzue etxera joan, eta gaurkoan beharrezkoa duk —begia kliskatuz, gure negozioarengatik pozez gainezka, nire aburuz.

—Tira —moztu nuen supituan—, gauzak okertu egin ditun eta lehenbailehen elkartu behar dinagu. Non zeuden beste biak?

—Joder, zer pasa duk, ba? Ez zekiat, ez dituk urruti ibiliko —oso azkar ari zen haren aurpegiko kolorea aldatzen, zirkulu kromatiko osoa pasa eta zurian pausatu arte—.

Haiek azalduko zain egotea pentsatu genuen. Gure laguna bakarrik zegoen tabernan, eta oraindik gauerdia iritsi ez bazen ere, musika itzali eta argiak piztu zituen. “Gaurkoz amaitu duk

fiesta" edo "bazegon taberna gehiago" bezalakoak bota zizkien egindakoaz itaundu zuten bezeroei. Laster batean hustu zen taberna, eta azken bezeroa irten ahala sartu ziren medikua eta irlandarra, ezker-eskuinera begiratzuz, tabernan zer gertatzen ote zen asmatu nahian. Gu biok han bertan ikusteak, tabernariari ez bezala, susmo txarra ekarri zien, are gehiago irlandarrak, zeharka, kopilotuaren ukondo gorrituari begiratu zionean.

—Hara —hasi nintzen—, gauzak okertu egin dira.

Taberna itxi zuen, inor gehiago ez baitzen geratzen. Ondoren, kafesneaz batzuk eta pattarraz besteak, zintzurak eta nerbioak lasaitutakoan, autoak kolpea nola hartu zuen kontatu nien, baita gure ezinegonari irtenbidea emateko bururatu zitzaiguna ere.

—Ez dakigu zein egoeratan geratu den —kopilotuak—. Ez dakigu osorik dagoen ala ez, eta saltzeko gisan dagoen ala ez. Hala ere zuekin garbi jokatu nahi dugu.

Tabernak bazuen atzealdean patio antzeko bat, eta bertara eraman genuen Ford zaharra. Haren inguruan bildu eta hizketan jarraitu genuen.

—Tratua aldatu egin da. Arriskatu egin beharko duzue, kontu honekin segi ala ez —nik.

—Atzera eginez gero —kopilotuak—, dirua itzuliko dizuegu, eta akabo fandango.

—Jarraituz gero, baina —berriro nik—, azkeneraino izango da, eta guztiok irabazi ala guztiko galduko dugu. Gainera, hemen nik daukat gehien galtzeko.

—Eta nola dakigu honezkero ireki ez duzuenik? —hirutako batek.

—Edo guztia alferrik galdu ez denik? —beste batek.

Ez zegoen hori jakiteko modurik. Guk oraindik ez genuela ireki kontatu genien —eta horixe zen egia—, eta beraiek sinistu egin behar zutela. Ala ez. Ez zen beste modurik. Aitzitik, beraiek ere bazekiten ataka horretan zeudela. Zer egin, heien sosak jaso, eta berdinean segi hurrengo hamabost urtean ala arriskatu eta berebiziko gizendua hartu hurrengo hamabost urterako? Eta arriskatzuz gero, eta hemen zegoen koska, egundoko mahuka hurrengo hamabost urtetarako ala aurreko hamabost urtetako diruak pikutara?

Irlandarra zen uzkurrena lanarekin aurrera egiteko. Medikuak muturra epel-epel zuen, eta muturraren aurrean zuena bezala, negozioa ere ez zuen batere argi ikusten. Tabernaria zen arestian aipaturiko aukera guztiak neurtu zituen bakarra, gu biok salbu, eta berak hartu zuen aurea. Kokoteraino zegoela taberna puta batean lan egiteaz, betiko mozkorren sesioak pairatzeaz, eta bere bizitzari beste aukera bat eman nahi ziola.

—Hi ere —tabernariak irlandarrari— horretarako etorri hintzen hire herritik ihesi; diru pixka bat irabazi eta lasai bizitzeko. Eta hemen habil, hura ezin ahaztuz, tabernetan guinnessak eskatzen, horrek herrimina arinduko dialakoan. Ahaztu ezak Irlanda, ez haiz eta, berriz hara itzuliko, dondinerorekin ez baduk.

Medikuari ere bota zion erretolika. Hitz egin eta edan besterik ez zuela egiten, zuen diru apurra amari kendutakoa zela, ia berrogei urte zituela eta ez zuela sekula taxuz lanik egin, eta abar.

Gauzak horrela, eta haren gidaritzapean, lanarekin aurrera egitea erabaki genuen; maletegia ireki eta zintzurreko estuasuna arindu, hori zen egin beharrekoa. Edo aurreztu genituen diru apurrek ihes egin zigutela onartu. Eta autoaren bueltan jarri ginen, batzuk alde batean eta besteak bestean, baina inor ere ez atzealdean. Erabakia hartu izanak, nolabait, lasaitu egin gintuen, eta, finean, presarik ez zegoenez, garagardo batzuk atera genituen. Zaila zen gauzak gehiago okertzea. Hirugarren erronda amaitzerakoan kopilotuari pasa nizkion giltzak, nik baintuen oraino.

—To —esan nion, alegera—, zabal ezak, ba.

Airean hartu zituen, janzten zuen irribarreak aurpegia biluztearekin batera. Sekula ez nuen pentsatuko pertsona bat horren azkar zurbil zitekeenik.

—Te, te, te. Nik ez diat zertan zabaldu —erantzun eta ingurua arakatu zuen. Irribarre guztiak desagertuak ziren—. Hik ireki ezak, petrikilo.

Tira, medikuak ez zuen ezer esan, ezin baitzuen ezer esan. Hala ere ez zirudien horretarako prest zegoenik. Halaxe adierazten zuten, bederen, bere buruaren ezkerretik eskuinerako astinduek. Ez zekien giltzekin zer egin.

Elizako kanpandorreak ordu biak zirela gogora arazi zigun, giltzak hirugarren saltoa eman ahala, oraingoan pekek jositako irlandarraren eskura. Honek ere ezetz. Tabernariak “erabaki” zuela aurrera egitea, eta berak ireki zezala maletategia.

Zatarki kendu zizkion giltzak horrek eskuetatik, “irlandar alua” edo antzeko biraoren baten apainduraz. Berak irekiko zuela. Ez zuela ulertzen zeren beldur ginen, hor barrukoa ez baitzegoen bizirik. Asko⁴ jota, birrinduta egongo zen, eta orduan, milaka dezente euro galduko zuten.

Oskarbi zegoen, eta negua zen. Bostok gorputza alkoholaz epeldua genuen, eta instant hori heldu arte ez genuen hotzik sentitu, merkurioa arras behera jausia bazen ere. Dena den, tabernariak giltza hartu eta mailatutako autoaren atzeko aldera hurbildu zenean, isiltasuna nagusitu zen. Kanpai-hotsen oihartzunak ere pausalditxo bat egin zuen, eta alkoholak eta beldurrak elikatutako irri ergelek eman ziguten berotasuna behingoan joan zen. Nik hotzikara gorri bat sentitu nuen, eta besteak ere ez bide ziren urrun ibili, haien aurpegien arabera, behintzat. Zipitzik esan gabe, zirkinik egin gabe, neskari begiratu genion laurok. Hari ere adorea amaitzen ari zitzaion sarrailara hurbildu ahala. Giltza sartu aurretik begiratu egin zigun. Guztioi eta bakoitzari, banaka. Une batez gelditu zen, eta, ondoren giltza sartu zuen. Erraz sartu zen, eztiki, ia hotsik atera gabe. Eskua giltzari loturik zuen, burua makur, zerbait pentsatzen egongo balitz bezala.

—Aizue —esan zuen—, honek susmo txarra ematen zidak.

—Zer dun HAU —esan nion.

—Ez zekiat, egoera honek. Hik ireki ezak, hirea duk eta, autoa.

Banekien autoa nirea zela. Maletategian zegoena ere nirea zen, baina hura saltzea guztiok erabaki genuen, eta momentu horretatik aurrera guztiona zen. Esan beharrik ez, nik ez nuela hura irekitzeko batere gogorik. Ez atea zabaltzeari berari beldurra niolako, ez, baizik eta kontzeptuagatik beragatik. Zergatik izan behar nuen nik? Jabea nintzelako? Ez nengoen horretarako prest, eta halaxe adierazi nien. Petrikiloak hori alukeria bat zela esan zidan.

—A, bai? Alukeria? —erantzun nion— Ba herorrek ireki ezak orduan? Zergatik ez duk hik irekitzen?

Ez zuen erantzuten jakin izan. Ez berak, ez beste inork. Urduri geunden, tirabiran hasteko hari-harian, eta kopilotoa aulki batzuk hartzera sartu zen tabernara. Ibilgailuaren ezkerraldean jesarri ginen hark ekarritako aulkietan, autoak jasotako kolpeak ez ikusteko-edo. Edari gehiago bagenuen, eta denborari bere bidea egiten uztea erabaki genuen. Bai, bagenekien goizeko hamarretan entregatu ezcan arazo larrian izango ginela, baina oraindik bazen denbora; hirurak laurden gutxi. Zigarreta. Hirurak bost gutxi. Beste garagardo erronda; ilegorriak guinnessa eta medikuak kalimotxo. Hirurak eta hamar doi. Inguruko tabernek ere itxi zituzten ateak, eta herria isiltasun uholde batek gainezkatu zuen. Lantzean behin, katuren bat, kilkerak. Eta gure arnas hotza eta, honezkero bai, gure arnas hotza. Astiro zihoazen minutuak aurrera, garagardo, kafesne, zigarreta eta abarrak baino askozaz ere astiroago. Autoaren atzeko atea irekitzera hurbildu zen azkena, hasitakoa amaitu gabe, noski, irlandar ilegorria izan zen, eta, atzera egin ostean sabaiaren gainean utzi zituen, guztion begien bistara. Laurak aldera joan nintzen komunera, beharra bai bainuen eta.

—Ni komunera noa. Ez ezazue ireki ni itzuli arte —ironiaz-edo.

—Lasai joan hadi, itxarongo haugu.

Eta abiatu egin nintzen. Adiskideei bizkarra eman bezain pronto, baina, zerbaiti susmo txarra hartu, buelta eman, eskua luzatu eta nirekin eramanez nituen giltzak. Burua ez, baina maskuria lasaitzen ari nintzela entzun nituen lau kanpai-hotsak. Gaua aurrera zihoan. Azkenean, gaupasa eginda joango ginen tipoarengana.

Itzuli nintzenean, tabernaria eta kopilotua kanuto baten bueltan zeuden, eta irlandarra eta medikua hizketan. Ezer gertatu ez balitz bezala ari ziren batzuk zein besteak. Tabernariak ziria piztu zuen, kopilotua hari eztiki begira. Irlandarrak irribarre, aurrekoengandik hamarren bat metrora, medikua hari eztiki begira. Jakin banekien medikua eta irlandarraren artean bazela zerbait, eta jakin ere banekien tabernariak beti zeramala harri puskaren bat patrikan, baina zertan ginen ahaztu zutela

zirudien. Ez ziren bost minutu pasa, eta gure arazo ekonomikoak salbatu edo hondoratuko zireneko kezka desagertu egin zela iduri zuen. Baten ahotik irteten zen kearen antzera, bestearen ahotik zerien hitzak bezala. Ez nuen deus ulertzen. Honezkero kopilotuak zuen porrua hatzen artetik kendu ahala eten nuen beste bien artekoa. Horien aurpegiak gehixeago elkartuz gero, ez negozio, ez maletategi eta ez deus. Zerbait galdu ote nuen galdegin nien, erabakiren bat hartu zuten ala ez. Irlandarrak kontatu zidan nekaturik zeudela, eta horrelaxe, osorik zegoen baieztatu gabe eramango geniola.

—Sano al hago? —aurpegiratu nion— Haren aurrean derrigorrez ireki beharko diagu, eta hautsita badago... —hatz potoloa zintzurrean zehar irristatu nuen, ezkerretik eskuinera.

—Ba herorrek ikusiko duk zer egin, azken finean hik hitz egin duk harekin, eta hik jasoko dituk hostiak.

Ilegorriak bota zidana ezin onartu nintzala, bitan pentsatu gabe, muturrera oldartu nintzaion, lepoari heldu ala muturrera ukabila zuzendu jakin gabe. Doi-doi altxa zituen eskuak, nireak, nola edo hala, gelditzeko, eta zalaparta horretan besteak ere nahastu ziren berehalakoan; medikua ilegorria defendatu nahian, kopilotuak nire alde eginaz, tabernaria oiuhu batean. Inork, leihoren batetik zerbait esan zuela ere iruditu zitzaidan une batez. Birao batzuk, oiuhu batzuk, eta apurka-apurka geure onera itzuli ginen berriz, errezeloak errezelo. Garbi zegoen ate puta hura zabaldu behar genuela. Eta kanpandorrekoak denbora, errukigabe, aurrerabidean zihoala gogora arazi zigun, oraingoan laurak eta erdi zirela adieraziz, iseka-hotsez.

Bostak ere heldu ziren.

Tabernariak ogitarteko batzuk prestatu zituen, goseak ere bere presentzia eduki nahi izan baitzuen ordurako. Garagardo gehiago. Irlandarrak eta biok, batak mutur bati eta besteak besteari eusten genion, badaezpada.

Bostak eta erdietan berriz utzi nituen giltzak autoaren gainean, norbaitek hartuko zituelako esperantzaz, eta bide batez, horretarako gonbita eginaz. Inork ez zuen enbidoa jaso. Ilegorriak

gorrotoz begiratu zidan, medikuak errezeloz, tabernariak burlati, ia jolasti. Kopilotua soilik irudituz zitzaidan kezka gainezka zegoela.

Berriz ekin genion eztabaidari, hik ireki, beste hark, nik, agian...

Seietako kanpai-hotsak ez genituen entzun ere egin. Ordurako taberna barrura sarturik ginen, epeltasunaren bila, eta bat han, hemen bestea, zapo lo geratuak ginen.

—Ia bederatziak dituk!

Kopilotuak esnatu ninduen oraingoan, hamar bat ordu lehenago, nik esnatu nuenean, neronek erabili nuen tonu antzekoaz. Besteak ere esnatzen ari ziren (medikua larrien). Tabernariak patiora egin zuen, besteak atzetik gintuelarik, eta auto gainetik giltzak hartu zituen.

—Tira, pikutara pitokeriak! Denak ados gaude hau ireki egin behar dela, ezta?

Erantzunik behar ez duen galdera zen, baina guztiok maletategia irekiko zuela uste genuenean, niregana jiratu zuen.

—Ba, ez zeukaagu denbora larregi —bota zidan—, beraz, tira, ireki ezak behingoz.

—Joder, hasi al gaitun bart bezala? —erantzun nion, irtenbidea geroz eta urrunago ikusiz.

—Hasi? bukatu al genian, ba?

Leher eginda ginen, arropak keak kirasturik eta ahoak alkoholak lehorturik. Apenas egin genuen lo, eta pentsatzeko ere arazoak genituen. Denok ginen gertatzen zenaren jabe, eta aukera bat eta bakarra zen. Eta horrek lehenbailehen maletategi puta hura irekitzea eskatzen zuen. Bederatziak joanak ziren, eta hamarretarako hogeit hamar kilometro haratago egon behar genuen. Eta ordurako salgaia salgarri zen jakin.

Bederatziak eta laurden.

Bederatziak eta erdi.

Patuari zain bezala ginelakoan geunden, nik uste. Jakin bagenekien oso zela erraza sarraillari eragitea, baina gutako inor ez zegoen prest hori egiteko. Autoa patiotik mugitzerik pentsatu ere egin gabe berriz egin genuen tabernarantz, kafesne beroak barrua epelduko zigulakoan.

Hamar kanpai-hotsak entzutearekin batera, beste sarraila-hotsa entzun genuen. Egunero bezala, garbitzailea tabernara sartu zen, bere eginbeharrekoa egiteko asmoz.

Harriturik begiratu gintuen, bertan zertan ari ginen ulertu ezinik.

Bostak batera, nik uste, ideia bera izan genuen. Berak ez zukeen inolako arazorik izango ate madarikatua irekitzeko. Berak ez baitzuen gure negozioen berri. Berak ez baitzekien guk zer pasatu genuen gau osoan. Berak ez baitzuen inoiz Luis Buñuelen pelikularik ikusi.

Baina hamarrek joak ziren, eta ordurako beranduegi zen.

LEMA: ALDERRAI